

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2026ko uztailaren 4tik 10erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2026/07/04

- **OGASUN MINISTERIOA.** Zergak. **Zerga-prozedurak. HAC/623/2026 Aginduaren, ekainaren 12koaren, huts-zuzenketa.** Agindu horrek honako agindu hauek aldatzen ditu: EHA/3316/2010 Agindua, abenduaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baitira ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren 210, 211 eta 213 autolikidazio-ereduak (establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak, establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei ondasun higiezinak eskuratzean aplikatutako atxikipena eta entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga berezia deklaratzeko erabili beharrekoak) eta ezartzen baitira eredu horien baldintza orokorrak, horiek aurkezteko prozedura eta ez-egoiliarren tributazioaren inguruko beste erreferentzia-arau batzuk; EHA/3290/2008 Agindua, azaroaren 6koa, zeinaren bidez onartzen baita 216 erdua «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Atxikipenak eta konturako sarrerak. Sarreraren aitorpena/agiria» eta 296 erdua «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Atxikipenen eta konturako sarreraren urteko aitorpena»; eta EHA/1658/2009 Agindua, ekainaren 12koa, zeinaren bidez ezartzen baitira Zerga Administrazioako Estatu Agentziak eratzikitze bidez kudeatzen dituen zor jakin batzuen ordainketa helbideratzeko prozedura eta baldintzak. **14499 Xedapena- 2 or.**

2026/07/07

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA.** Airearen kutsadura. **Dirulaguntzak.** PJC/678/2026 Agindua, uztailaren 6koa, errege-dekretu honen I., II., eta III., eranskinak aldatzen dituen: 309/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, 2021-2030 aldian karbono-ihesa izateko arrisku nabarmena dutela uste den industria-sektore eta -azpisektoreetarako zeharkako kostuak konpentsatzeko mekanismoa ezartzen duena. **14655 Xedapena- 15 or.**
- **LAN ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA.** Enplegurako Lanbide Heziketa. **TES/679/2026 Agindua, ekainaren 29koa,** beste agindu hau aldatzen duena:

TMS/368/2019 Agindua, martxoaren 28koa, zeinaren bidez uztailaren 3ko 694/2017 Errege Dekretua garatzen baita administrazio eskudunen prestakuntza-eskaintzari eta haren finantzaketari dagokionez eta hura finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen baitira. Errege-dekretu horrek Lan Arloko Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legea garatzen du.

14656 Xedapena- 4 or

- **EKONOMIA, MERKATARITZA ETA ENPRESA MINISTERIOA.** Finantza-neurriak. **Ebazpena, 2026ko uztailaren 3koa**, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, beste ebazpen honen 1. eranskina eguneratzen duena: Ebazpena, 2017ko uztailaren 4koa, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa zaien finantza-zuhurtasunaren printzipioa definitzen duena. 14657 Xedapena- 3 or.

Día 08/07/2026

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.** Animalien osasuna. **536/2026 Errege Dekretua, ekainaren 30ekoa**, honako errege-dekretu hau aldatzen duena: 429/2022 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, estatu mailan azienden ugalketarako produktuak merkaturatzeko arauak ezarri, eta produktu horien Europar Batasunaren barruko joan-etorriei aplikatzen zaien Europako araudia aplikatzeko neurriak arautzen dituen. 14762 Xedapena- 3 or.
- **Dirulaguntzak. Nekazaritza Politika Erkidea. 537/2026 Errege Dekretua, ekainaren 30ekoa**, errege-dekretu hauek aldatzen dituen: 819/2021 Errege Dekretua, irailaren 28koa, titulartasun partekatuko nekazaritza-ustiatzei zuzeneko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta 2021eko ekitaldirako deialdia onesten duena; 1048/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, 2023tik aurrera Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan zuzeneko ordainketen esku-hartzeak aplikatzeari eta betekizun komunak ezartzeari buruzkoa eta kudeaketa- eta kontrol-sistema integratuaren eskaera bakarra arautzeari buruzkoa; eta 938/2025 Errege Dekretua, urriaren 21ekoa, nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren arloan zuzeneko dirulaguntzak ematea arautzen duena. 14763 Xedapena- 9 or.

2026/07/09

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.** Presako neurriak. Huts-zuzenketa, errege lege-dekretu honena: **17/2026 Errege Lege Dekretua**, ekainaren 23koa, Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistema indartzeko eta finkatzeko aparteko neurriena. 14877 Xedapena- 1 or.

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA.** Mugape eta planta judiziala. **559/2026 Errege Dekretua, uztailaren 8koa**, 2026. urteko programazioko bostehun unitate judizial sortzekoa eta planta judiziala egokitzekoa. [14878 Xedapena- 102 or](#)
- **Fiskaltza. Plantilla organikoa.** **560/2026 Errege Dekretua, uztailaren 8koa**, Ministerio Fiskalaren plantilla organikoa handitzen duena, egungo premiei egokitze aldera. [14879 Xedapena- 27 or.](#)

2026/07/10

- **LAN ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Antolamendua.** **TES/693/2026 Agindua, uztailaren 3koa**, Enpresen Gizarte Erantzukizunaren Estatuko Kontseilua sortu eta arautzen duen otsailaren 15eko 221/2008 Errege Dekretua garatzen duena, bokalak esleitzeko prozedurari eta horien titularrak izendatzeari eta kargutik kentzeari dagokienez. [15029 Xedapena- 7 or.](#)
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA.** Zirkulazioa. Neurri bereziak. **5/2026 Ebazpena, uztailaren 1ekoa**, Segurtasun Saileko Trafikoko zuzendariarena, zeinaren bidez neurri berezi osagarriak ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan zirkulazioa arautzeko, 2026ko abuztuaren 12an gertatzekoa den eguzki-eklipse osoa dela eta. [15034 Xedapena- 2 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2026/07/06

LEHENDAKARITZA

- **5/2026 LEGEA, ekainaren 25ekoa**, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legea Hizkuntza-normalizazioko Neurriei dagokienez aldatzekoa. [3033 Xedapena- 4 or.](#)
- **6/2026 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Euskadiko Sustapen-izaerako** Tradiziozko Zezen-ikuskizunak arautzekoa. [3034 Xedapena- 8 or.](#)

2026/07/07

- **SEGURTASUN SAILA. EBAZPENA, 2026ko ekainaren 22koa**, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendariarena, autobabes-planak egiteko gaitutako teknikarien akreditazioa nola lortu eta berriztu arautzen duen Segurtasuneko sailburuaren 2025eko uztailaren 24ko Aginduaren eranskina aldatzen duena. **3069 Xedapena- 3 or.**

2026/07/09

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. 2/2026 FORU ARAUA, ekainaren 11koa**, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzkoa. **3118 Xedapena- 31 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2026/07/08

- **Arabako Foru Aldundia. FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK. 23/2026 Foru Dekretua, ekainaren 30ekoa**, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea 2026ko aurrekontu ekitaldia ixteko eragiketei eta ekitaldi horretako hondarren ordainketak arautzeari. **1992 Xedapena.- 7 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2026/07/08

- **DIPUTATU NAGUSIA. Akatsen zuzenketa: 1/2026 Foru Araua, ekainaren 11koa**, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarena. **4624 Xedapena- 1 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO